



---

## **A K T A**

Aiarako Kuadrillaren **TOKIKO GOBERNU BATZORDEAK** modu telematikoan egindako ezohiko bilkurarena

### **2020ko azaroaren 20koa**

Organo honen asistentzia telematiko bidez, **13:09an**, jarraian zerrendatzen diren batzarkideak elkartu **dira ezohiko bilkura egiteko, lehen deialdian**. Aiarako Kuadrillako Tokiko Gobernu Batzordeko udalburu **Encina Castresana Astarloa** andrea izan da bilkuraren burua, eta M<sup>a</sup> Virginia Carcelén García andrea, behean izenpetzen duena, aritu da idazkari-lanetan.

Jarraian aipatutako jaun-andre batzarkideak konektatu dira bideokonferentziara:

**Encina CASTRESANA ASTARLOA and. (EAJ-PNV)**  
**Ander AÑIBARRO MAESTRE jn. (EAJ-PNV)**  
**Gentza ALAMILLO UDAETA jn. (EAJ-PNV)**  
**Txerra MOLINUEVO LAÑA jn. (EAJ-PNV)**  
**Jon ESCUZA DEL CAMPO jn. (EAJ-PNV)**

Ez da bertaratu eta ez etortzea justifikatu du honako batzarkide honek:  
**Joseba VIVANCO RETES jn. (EH BILDU)**

Escuza del Campo jauna 13:15ean konektatu da bilkurara, gai-zerrendako 3. puntua aztertzen ari zenean. Halaber, Añibarro Maestre jauna bilkuratik deskonektatu da 13:25ean, gai-zerrendako 6. puntua amaitu ostean.

Ez dira bilkurara bertaratu Talde Politiko Batzarkideetako bozeramaileak, gonbidatuak izan arren.

Gainera, Kuadrillako honako teknikari hauek ere konektatu dira, Kuadrillako teknikari gisa, dagozkien sailtako puntuak azaltzera: Gianfranco Ghio jauna, Amurrio andrea eta Arbaizagoitia andrea.

Bilkura modu telematikoan egin da, martxoaren 31ko 11/2020 Errege Lege Dekretuaren azken xedapenetatik bigarrenean ezarritakoaren arabera. Horren bidez, Toki araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legea aldatu da, eta 46. artikuluari beste atal bat gehitu zaio, 3. atala, hain zuzen ere. Horrek organo honi bilkurak



---

modu telematikoan egiteko aukera ematen dio, COVID-19ak eragindako gaur egungo salbuespeneko osasun-egoera aintzat hartuta.

Kuadrillako presidente andreak, **lehenengo deialdian, 13:09an**, bilkura irekita dagoela adierazi du, eta, idazkariak bilkura abiarazi ahal izateko quoruma badagoela egiaztatu ondoren, Eskualdeei buruzko Foru Arauaren (azaroaren 20ko 63/1989 Foru Araua) 25. artikuluan xedatutakoari jarraikiz, besteak beste abenduaren 16ko 57/2003 Legeak aldarazitako Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituen Legearen (apirilaren 2ko 7/1985 Legea) 46.2.c) artikuluari lotuta. Presidente andreak hasteko agindua eman du, eta adierazi du ezarritako gai-zerrendari jarraituko diotela.

## **1.- IRAKURTZEA ETA ONESTEA, HALA BADAGOKIO, AZKENEKO BILKURAREN AKTAREN ZIRRIBORROA**

Deialdiarekin batera, egindako azken bilkurako zirriborroa erantsi da, hori aztertzeko, eta ez dagoenez inongo alegaziorik, **ERABAKI DA**, aho batez, 2020-11-04an egindako bilkurako akta onestea.

## **2.- 2020ko PECOa (ESKUALDEKO ENPLEGU PLANA) ARAUTZEN DUTEN PLEGUAK ONESTEA**

Saileko teknikari Ghiro jaunak honako hau adierazi du:

Lanbidek ez duela ebatzi enplegu-planentzako laguntzen eskaera. Laguntza hori uztailaren 29an eskatu zen.

Kontratazioak abenduaren 31 baino lehen egin behar dira, eta iragarkiak Lanbiden argitaratu behar dira. Udalek zuzenean kontratatzen dituzten langileei dagokienez, iragarkiak nahi dugunean egin eta argitaratu ditzakegu, baina lan-munduan txertatzeko enpresa batekin kontratatzen ditugun ekipoak lizitatu gabe daude eta ia epez kanpo gaude kontratazioak abenduaren 31 baino lehen egiteko betebeharra betetzeko.

Proposatu da lan-munduan txertatzeko enpresa batekin kontratatuko ditugun ekipoen lizitazioa onestea. Kontratua ez da sinatuko laguntza ebatzita egon arte.

Ekipoen eskaera Udalen eskaeren arabera egin zen, eta Laudioko Udalarena geroago zuzendu zen behar diren materialei dagokienez.

Laburpena honako hau da:



	<u>PERTSONAK</u>	<u>KOSTUA</u>	<u>DIRULAGUNTZA</u>	<u>UDALAREN KOSTUA</u>
Amurrio, 2. baso-ekipoa	5	95.946,29 €	62.500,00 €	33.446,29 €
Amurrio, 1. hirigintza-ekipoa	5	93.573,19 €	62.500,00 €	31.073,19 €
Amurrio, 3. herri-laguntzaile ekipoa	3	42.858,67 €	24.000,00 €	18.858,67 €
Laudio, 1. ekipoa	5	94.000,00 €	62.500,00 €	31.500,00 €
Laudio, 2. ekipoa	5	94.000,00 €	62.500,00 €	31.500,00 €
<b>GUZTIRA</b>		<b>420.378,15 €</b>	<b>274.000,00 €</b>	<b>146.378,15 €</b>

Udalek zuzenean kontratatu beharreko langileak:

	<u>PERTSONAK</u>	<u>KOSTUA</u>	<u>DIRULAGUNTZA</u>	<u>UDALAREN KOSTUA</u>
<b>Aiara</b>		<b>78.000,00 €</b>	<b>50.000,00 €</b>	<b>28.000,00 €</b>
Arkitektoa	1	32.000,00 €	12.500,00 €	
Administraria	1	16.000,00 €	12.500,00 €	
Peoiak	2	30.000,00 €	25.000,00 €	
<b>Artziniega</b>		<b>46.000,00 €</b>	<b>37.500,00 €</b>	<b>8.500,00 €</b>
Administraria	1	16.000,00 €	12.500,00 €	
Peoiak	2	30.000,00 €	25.000,00 €	
<b>Okondo</b>		<b>45.000,00 €</b>	<b>37.500,00 €</b>	<b>7.500,00 €</b>
Peoiak	3	45.000,00 €	37.500,00 €	
<b>Orduña</b>		<b>30.000,00 €</b>	<b>25.000,00 €</b>	<b>5.000,00 €</b>
Peoiak	2	30.000,00 €	25.000,00 €	
<b>Amurrio</b>		<b>16.000,00 €</b>	<b>12.500,00 €</b>	<b>3.500,00 €</b>
Administraria	1	16.000,00 €	12.500,00 €	
		<b>215.000,00 €</b>	<b>162.500,00 €</b>	<b>52.500,00 €</b>

	<u>KONTRATUA</u>	<u>DIRULAGUNTZA</u>	<u>EKARPENA</u>
<b>LAUDIO 2</b>	94.000,00 €	62.500,00 €	<b>31.500,00 €</b>
<b>LAUDIO 3</b>	94.000,00 €	62.500,00 €	<b>31.500,00 €</b>
<b>AMURRIO 1</b>	93.573,19 €	62.500,00 €	<b>31.073,19 €</b>
<b>AMURRIO 2</b>	95.946,29 €	62.500,00 €	<b>33.446,29 €</b>
<b>AMURRIO 3</b>	42.858,67 €	24.000,00 €	<b>18.858,67 €</b>

420.378,15 €	274.000,00 €	<b>146.378,15 €</b>
--------------	--------------	---------------------



	%	EKARPENA
LAUDIO	% 100,00	63.000,00 €
AMURRIO	% 100,00	83.378,15 €
AIARA	% 0,00	0,00 €
ARTZINIEGA	% 0,00	0,00 €
OKONDO	% 0,00	0,00 €
URDUÑA	% 0,00	0,00 €

**146.378,15 €**

Bost enplegu-programak lizitatuko dira, eta lanaldi osoko langileak Udalak kontratatuko ditu zerbitzua ematen den tokian. Udalak Kuadrillari eman beharko dio kostuaren % 100, eta kontratuen, nominen eta ordainketa-ziurtagirien kopiak atxiki beharko ditu. Kuadrillak, behin Lanbidek laguntza ematen eta justifikatzen duenean, dagokion udalari laguntzaren zenbatekoa emango dio.

Problematika aztertu eta horri buruzko eztabaida bukatu ostean; aho batez **ADOSTU DA** honako **ERABAKI** hau hartzea:

**LEHENENGOA:** Onestea 2020-21eko enplegu-planen aurreikusitako kostuak.

**BIGARRENA:** Lanbidek emandako laguntzarekin, aipatutako enplegu planak finantzatzea. Horretarako, udalek ordaindu beharko dute beren udalerrian egingo den enplegu-planaren benetako kostuaren eta esleitutako laguntzaren arteko desberdintasuna. Udalek finantzatzea aurreikusten den zenbatekoa 146.378,15 € da.

**HIRUGARRENA:** Ekarpinak eskatuko dira, enplegu-planak lan-munduan txertatzeko enpresa bati esleitu ostean.

**LAUGARRENA:** Lanbidek laguntza ebatzi ez duenez, Lanbideri eskatzea programari hasiera emateko epea luzatu dezan.

2020-21eko Enplegu Planen lizitazioa onetsi da. Era berean, aho batez onetsi da honako **ERABAKI** hau hartzea:

**LEHENENGOA.-** Lizitazioa onestea prozedura-ireki bitartez eta presazko izaerarekin, 241 227 997 partidaren kargura jarraian aipatutako enplegu-planak kontratatzeko:

	<b>LANGILERIAREN</b>	
	<b>KOSTU</b>	
	<b>MAXIMOA</b>	<b>LIZITAZIOA</b>
Amurrio, 2. baso-ekipoa	64.507,33 €	95.946,29 €
Amurrio, 1. hirigintza-ekipoa	64.507,33 €	93.573,19 €
Amurrio, 3. herri-laguntzaile ekipoa	24.964,96 €	42.858,67 €



---

Laudio, 1. ekipoa	64.507,33 €	94.000,00 €
Laudio, 2. ekipoa	64.507,33 €	94.000,00 €
<b>GUZTIRA</b>	<b>282.994,28 €</b>	<b>420.378,15 €</b>

**BIGARRENA:** Onestea bost enplegu-programen kontratazioa arautzeko pleguak.

Pleguak onetsi eta gero, 420.378,15 euroko kreditu-atxikipena egingo da.

### **3.- AIARAKO KUADRILLAREN TURISMOKO LAGUNTZA TEKNIKO ARAUTZEKO PLEGUAK ONESTEA**

Saileko teknikaria

Kuadrillaren turismoko laguntza teknikoaren zerbitzua kudeatzeko enpresa kontratatzea proposatu da, 2020ko PECOrako langileak kontratatzeko.

Gaia aztertu eta eztabaidatu ostean, aho batez **ADOSTU DA** honako **ERABAKI** hau hartzea:

**LEHENENGOA:** Onestea turismoko laguntza teknikoaren kontratazioaren prozedura ireki bidezko lizitazioa eta Kode Etikoa, bi urteko kontratuarekin eta bi luzapen posiblerekin, urtero 29.520 euroan (BEZik gabe). Kontratu horrek urteko asistentzia ekarriko du, lanaldi erdikoa (984 ordu), eta Kode Etikoaren asistentziaren orduko prezioa 32 € izango da (BEZik gabe). Aurreikusi da kontratuari hasiera ematea 2021eko urtarrilaren 1ean. Kontratazio hori 2021eko aurrekontuen aurreproiektuan jasotako 432 227971 aurrekontu-partidaren kargurakoa da.

**BIGARRENA:** Onestea Kode Etikoaren eta turismoko laguntza teknikoaren zerbitzuen kontratazioa arautzeko pleguak.

### **4.- TURISMOKO JARDUERAK**

Saileko teknikariak jakinarazi duenez, aurreikusitako ekintza asko egin ahal ezingo direla aprobetxatuta, eskualdea sustatzeko kanpaina bat diseinatu beharko lukete, alarma-egoerak ezarritako murrizketak amaitzean erabiltzeko eta proiektu honetarako dirulaguntza aprobetxatzeko; modu horretan, dirulaguntza honen ondoriozko lana % 50ean diruz lagunduko lukete.

Bestalde, Vital Fundazioak finantzaturako argazkigintza-ikastaroaren emaitza positiboa aztertu da eta proposatu da ikastaro hori berriz egitea, baina, oraingoa, Kuadrillak finantzatuta.



---

Okondoko alkateak bere udalerriko Dendatik Etxera kanpainak izan duen arrakastaren berri eman du. Teknikariak jakinarazi du, etorkizunean, kanpaina horretarako beste garraio-modu batzuk aztertu beharko direla.

Eztabaida bukatu ostean, aho batez **ADOSTU DA** honako **ERABAKI** hau hartzea:

**LEHENENGOA.-** Onestea eskualdea sustatzeko kanpaina bat egiteko proiektua, zeina turismoko foru-dirulaguntzarekin % 50ean finantzatuko den.

**BIGARRENA.-** Onestea argazkigintzako ikastaro berri bat egiteko aukera, Kuadrillak osorik finantzatuta.

## **5.- 2020ko LEHIAKETA BATERATUAREN DEIALDIAREN AFAREN JAKINARAZPENA**

Jakinarazi da, urtero bezala, Foru Aldundiak gaikuntza nazionaleko kidegoko lanpostu hutsak betetzeko lehiaketa bateratua deitu duela.

Eztabaidarik sortu ez denez, jakinaren gainean geratu dira guztiak.

## **6.- ONESTEA AIARAKO KUADRILLAREN TESTUAK ITZULTZEKO ETA OSOKO BILKURAK INTERPRETATZEKO ZERBITZUAREN KONTRATAZIOA ARAUTZEKO PLEGUAK**

Bilkurako deialdiarekin batera atxiki dira osoko bilkurak interpretatzeko eta testuak itzultzeko zerbitzua arautzeko Pleguen inguruko Eranskinak.

Saileko teknikari Amurrio andreak pleguak azaldu ditu.

Une horretan, Añibarro jauna bilkuratik irten da, zehazki, 13:25ean.

Plegu horiek aztertu ostean, aho batez **ADOSTU DA** honako hau **ERABAKI** hau hartzea:

**LEHENENGOA:** Onestea Aiarako Kuadrillaren testuak itzultzeko eta osoko bilkurak interpretatzeko zerbitzuaren kontratazioaren oso sinplifikatutako prozedura irekiko lizitazioa, hiru urtez gehi luzapen posible batez. Kontratua, urtero, 7.940,00 eurokoa izango da (BEZik gabe), eta bi lotetan banatuta egongo da: 1. lotea, itzulpen-zerbitzuetarako, eta 2. lotea, interpretazio zerbitzuetarako. Aurreikusitako kontratuari hasiera ematea 2021eko urtarrilaren 1ean. Kontratazio hori 2021eko aurrekontuen aurreproiektuan jasotako 920 227073 aurrekontu-partidaren kargurakoa da.



---

**BIGARRENA.-** Onestea Aiarako Kuadrillaren testuak itzultzeko eta osoko bilkurak interpretatzeko zerbitzuaren kontratazioa arautzeko pleguak.

## **7.- BILKETA SOLIDARIORAKO KANPAINAREN PROPOSAMENA, ECOVIDRIOREKIN**

Saileko teknikari Arbaizagoitia andreak jakinarazi du aukera dagoela 2020ko Ecovidrioren komunikazio-funtsen 1.550 euro erabiltzeko Aiarako Kuadrilla 1 kg = 1 kg kanpainara batzeko. Kanpaina hori abenduaren 1etik 15era bitartean garatuko da, eta horren xedea da beirazko ontziak biltzea, eta, beira kg bakoitzeko, 1 kg elikagai emango zaio Elikagaien Bankuari. Halaber, azaldu du bilketa horretarako 7 ontzi kokatuko direla (bi Laudion, beste bi Amurrion eta bana gainontzeko hiru udalerrietan). Edonola ere, ontzi horiek non kokatuko diren erabakitzeke dago.

Gaia aztertu ostean, aho batez **ADOSTU DA** honako hau **ERABAKI** hau hartzea:

**LEHENENGOA.-** Onestea Kuadrilla Elikagaien Bankua 1 kg = 1 kg kanpainara atxikitzea, eta, horretarako, 2020ko Ecovidrioren komunikazio-funtsen 1.550 euro erabiltzea.

## **8.- AIARAKO KUADRILLAN KOMUNITATEKO KONPOSTAJEA SUSTATZEKO 2020ko MITERD PIMAREN (INGURUMENA SUSTATZEKO PLANA) LAGUNTZAREN EBAZPENAREN KONTU EMATEA**

Saileko teknikariak 2020ko urriaren 27an egindako Ministroen Kontseiluaren bileran hartutako erabakiaren berri eman du. Erabaki horren bitartez, 2020ko irailaren 21ean egindako Ingurumenaren arloko Batzarrean ezarritako irizpide objektiboei eta erabakiei dagozkien aurrekontu-kredituen behin betiko lurralde-banaketarako da. Horren bidez, Aiarako Kuadrillari 18.960,00 euroko dirulaguntza emango zaio, komunitateko konpostajea bultzatuz. Gaineratu du kopuru hori gastuaren % 80aren baliokidea dela, eta justifikatzeko epea 30 hilabetekoa dela, esleipen-jakinarazpenetik kontatzen hasita.

Azalpena bukatu ostean, eta jakinaren gainean geratu dira guztiak.

Eta beste gairik ez dagoenez, legez bilkura amaitutzat eman da goian adierazitako eguneko **13:05ak** direnean. Era berean, presidenteak eta neuk, idazkariak, izenpetu dugu akta hau; eta horrezaz gain, neuk idatzitako guztia egiaztatzen dut.

**AIARAKO KUADRILLA  
ARABA**



**CUADRILLA DE AYALA  
ALAVA**

---

**KUADRILLAKO PRESIDENTEA. ENCINA CASTRESANA ASTARLOA.**

**IDAZKARIA. VIRGINIA CARCELÉN GARCÍA**

**ELEKTRONIKOKI SINATUTAKO DOKUMENTUA  
DOCUMENTO FIRMADO ELECTRÓNICAMENTE**